



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA

PROBA LIBREA

3. ariketa KOMUNIKAZIO EREMUA: EUSKARA ETA LITERATURA

2012KO MAIATZA

Deiturak eta izena: _____



JARRAIBIDEAK

1. Testua eta galderak arretaz irakurri eta ahal duzun bezain ongien erantzun.
2. Galdera guztiak erantzuten saia zaitez.
3. Emandako denbora baino lehen bukatuz gero, ondo birpasa ezazu egindakoa.
4. Adi ortografiari: letra larriak, txikiak, puntuak, komak, etab.
5. Horrela eskatzen den ariketetan, erantzun zuzena borobildu edo gurutze bat egin iezaiozu.
6. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.
7. Gaizki erantzundakoek ez dute puntuazioa jaitsiko.

INSTRUCCIONES

1. Lea atentamente el texto y las preguntas y conteste lo mejor que sepa.
2. Procure responder a todas las preguntas.
3. Si termina antes del tiempo fijado, repase bien lo que ha hecho.
4. Revise bien la ortografía: mayúsculas, minúsculas, tildes, etc., así como los signos de puntuación.
5. En aquellas actividades que así lo requieran, rodee con un círculo o haga una cruz en la opción que considere correcta.
6. La puntuación se indica al lado de cada pregunta.
7. Las respuestas incorrectas no restarán puntuación.

Irakurri testua eta ondorengo galderei erantzun:**ZORRIAK, GURE BURUKO MIN TXIKIAK**

Txakurra izango da, seguru aski, gizakiaren lagunik onena, baina gu gabe ere bizi daiteke.

Zorria ez. Eskoletan aspaldiko ezaguna da parasito txiki hori, eta gainera ezin kendu ibiltzen dira.

Haur guztiek izaten dituzte zorriak bizitzan behin, gutxienez, eta eskola garaian izaten da hori, 3 eta 12 urte bitartean. Baina helduek ere badute arriskua, batez ere zorriak dituen haur baten inguruan ibiltzen direnean. Zorriak oso nekagarriak dira, azkura ematen dute eta, gainera, hor



daudela jakin arren, ez dira erraz harrapatzen, ondo ezkutatuta egoten direlako.

Uste oker asko zabaldu da zorrien inguruan, eta horietako batek dio garbitasun faltaren eta higiene-ohitura txarren ondorio direla zorriak. Hori dela eta, etxe askotan zorrien gaia ez da aipatzen, eta zorriak agertzen direnean, lotsagatik, isildu egiten dira, eta eskolan ere ez dute ezer esaten.

Hiru zorri mota daude, eta bakoitzak gorputzeko zati bati eragiten dio. Bik badute zerikusia higiene faltarekin, pubiseko zorriak eta gorputzekoak, hain zuzen, baina hirugarrena, buruko zorria, ez da agertzen higiene faltagatik, transmisio bidez kutsatzen da.

Beste uste oker batek dio buruko zorriek gaixotasunak transmititzen dituztela, baina benetan ez dute inolako arriskurik, sortu dezaketan osasun-arazo bakarra azkura eta horren ondorioak dira: infekzioak eta zauriak. Buruko zorriak oso erraz ugaltzen eta zabaltzen dira, eta horixe izaten da arazorik handiena. Zorriak hilabetez bizi daitezke ilean, eta tarte horretan, 110 arrautza jartzeko gai izaten dira. Gorputzeko zorriek, ordea, badirudi orain arte transmititu izan dituztela gaixotasun larri batzuk, tifusa, esaterako.

Askok uste izan du etxeko animalien bidez kutsatzen direla zorriak. Beste batzuek pentsatzen dute uraren, harearen edo belarraren bidez pasatzen direla burutik burura. Baina ez da hala. Zorrien fisiologia dela eta, ileari heltzeko gai dira, eta buru batek bestea ukitzen duenean kutsatzen dira, edo orraziak, txanoak, diademak eta ilea ukitu duten beste objektu batzuk trukatzeko direnean.

Zorriak daudenean buruan, azkura etengabea eta hazka egiteko gogoia izaten da.

Horregatik, zorriei aurre egin behar zaie, eta iruditzen bazaigu gure seme-alabaren lagunen batek zorriak izan ditzakeela, arreta handiz aztertu behar diogu burua gure haurrari. Egunero-egunero zaindu behar dugu, pazientzia handiz, orrazi xehea eta zapi zuri bat eskuan hartuta. Zenbait xanpu, lozio eta lurrin ere lagungarriak dira zorriaren aurkako borrokan.

Consumer-retik ivapek egokitua

IRAKURMENA

1. Zein da testuaren ideia nagusia?

(1 puntu)

2 . Esan ezazu zein testu-mota den:

- a. Azalpen testua
- b. Narrazio testua
- c. Argudio testua

Arrazoitu erantzuna eta esan ezazu zein komunikazio funtzio betetzen duen aukeratu duzun testu-mota honek

(2 puntu)

3. Lexikoa:

Azal ezazu hitz hauen esanahia testu inguruan oinarrituz , edo eman ezazu hitz hauen sinonimoa:

(1 puntu)

Arriskua	
Ondorioa:	
Zerikusia	
Aipatu:	

4. Aukera ezazu erantzun egokia.

(3 puntu)

1. Zer esaten du testuak txakurrei buruz?

- a) Zorriak ezin direla txakurrik gabe bizi, parasitoak dira eta.
- b) Txakurrak dituzten umeek hartzen dituztela zorriak.
- c) Txakurrak pertsonarik gabe bizi daitezkeela, baina zorriak ez.

2. Noiz hartzen dira zorriak?

- a) Bizitzan behin baino ez dira hartzen, hiru eta hamabi urte bitartean.
- b) Eskola garaian hartzen dira, baina helduek ere har ditzakete.
- c) Hiru eta hamabi urte bitartean, eta txakurrak inguruan dituzten helduek ere hartzen dituzte

3. Zergatik dira zorriak nekagarriak?

- a) Inoiz ez dakigulako noiz dauden gure buruan.
- b) Nahiz eta zorriak ditugula jakin, zailak direlako harrapatzen.
- c) Nahiz eta erraz harrapatzen diren, azkura handia ematen dutelako.

4. Zer lotura dute zorriek higie faltarekin?

- a) Pubiseko zorriek eta gorputzekoek higie faltarekin zerikusia dute, baina burukoek ez.
- b) Higie faltarekin agertzen dira dauden hiru motatako zorriak.
- c) Soilik buruko zorria agertzen da higie faltarekin.

5. Gaixotasunak transmititzen al dituzte zorriak?

- a) Buruko zorriek azkura ematen dute, eta ondorioz, posible da gaixotasunak kutsatzea.
- b) Orokorrean ez dute gaixotasunik transmititzen, soilik azkura ematen dute.
- c) Zorri-mota guztiek transmititzen dituzte gaixotasun larriak.

6. Nola ugaltzen dira zorriak?

- a) Oso erraz, astean 110 arrautza jartzen dituzte.
- b) 110 arrautza jartzeko gai dira hilabete batean.
- c) Urte batean tartean 110 arrautza jartzen dituzte.

7. Nola kutsatzen dira zorriak?

- a) Etxeko animalien bidez kutsatzen dira beti.
- b) Burutik burura joateko ura, harea edo belarra erabiltzen dute.
- c) Buru batek bestea ukitzean kutsatzen dira.

8. Zer egin behar dugu zorrien aurka borrokatzeko?

- a) Egunero zaindu behar dugu gure seme-alaben burua.
- b) Zorriak ez agertzeko, ilerako lozio berezi bat egunero erabili behar da.
- c) Egunero-egunero zorrien kontrako xanpua, lozinoa eta lurrina erabili behar dira.

GOGORATU: ERANTZUNAK HEMEN JARRI BEHAR DITUZULA.

1	2	3	4	5	6	7	8

